



2018eko EKAINAREN 19 KO BILKURAKO AKTA

Bilkura: Ohikoa

Eguna: 2018/06/19

Ordua: 19.00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bilduak:

Olatz Iriarte Argaya. Alkatea

Luis Lopez Garcia Uceda. Zinegotzia

Ane Garmendia Gorostidi. Zinegotzia

Jokin Garmendia Etxeberria. Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDA

- 1.-2018-04-17 Bilkurako akta onartzea hala balegokio .
- 2.-Mikel Telleriaren lizentzi eskaera onartzea .
- 3.-Mendi federazioaren eskaera eta Alzagako udalaren erantzuna
- 4.-Guraso elkartearen aseguru udalaren gain izatea onartzea
- 5.-Guraso elkarte . udalekuak antolatzeke kontratazioaren inguruan dagokiona erabakitzea .
- 6.-Gure esku dago inguruan emandako erabakia berroneste .
- 7.-Goi tentsioko linearen inguruko adierazpenaren inguruan adierazpena onartzea , hala balegokio .
- 8.-Herri terrenoan inguruan egindako eskaera , bidea egitearena ikusi ondoren dagokiona erabakitzea .
- 9.-Alkateak eman dituen ebazpenen berri ematea , 2018-14tik 2018-26 bitarte.
- 10.-Galderak eta eskaerak



1.-2018-04-17 BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO .

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2018-04-17ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurri eta komentatu dira . Alkateak galdetzen zerbait zuzentzeko ikusten den. Mahaikide guztiak ados agertu dira eta dagoen bezala onartuta geratu da.

2.-MIKEL TELLERIAREN LIZENTZI ESKAERA ONARTZEA .

Mikel Telleriak 2018eko maiatzaren 22ean , posta elektronikoko bidez eskaera bat aurkeztu zuen . Eskaeraren xedea , kristalezko estalpea aurreikusia zuena baina zerbait luzeagoa egitea zen .

2017 urriaren 24eko Osoko Bilkuran , aterpea egitearekin batera beste lanak egiteko baimena onartu zen .

Aterpearen inguruan , udaleko arkitektoak dioena errepikatzen da eskera honetan: Aterpea egitea, inola zutaberik gabe, egokitzen ikusten da eta udal arkitektoak dioten bezala, lehen eraikinean erabilitako material berdina erabiltzea eskatzen da.

Honen berri jakin ondoren mahaikideek **ERABAKI DUTE :**

Eskatutako luzapena egiteko baimena onartzea , lehen erabilitako material berdina erabiliaz .

3.-MENDI FEDERAZIOAREN ESKAERA ETA ALTZAGAKO UDALAREN ERANTZUNA

Mendi federazioak bidalitako proposamena aurreko Bilkuran aztertu zen eta Altzagako udalarekin hitz egiteko geratu zen .

Altzagako udalaren ordezkariak argi adierazi du , bide honetatik zati txikia dela Altzagako udalerrinari dagokiona eta beraien aldetik ez dutela Federazioaren proposamena aurrera eramateko asmorik.

Azkenik , mahaikideek **ERABAKI DUTE :**



MENDI FEREDERAZIOAK EGINDAKO PROPOSAMENA UZTEA
AURRERA JARRIATU GABE .

4.-GURASO ELKARTEAREN ASEGURUA UDALAREN GAIN IZATEA ONARTZEA

Guraso elkartearen jardueran babesteko , udalak 2017 urtean , beraien izenean aseguru bat egin zuen .
2018 urtean errezibo hori guraso elkarteari iritsi zaio baina ordainketa udalaren izenean helbideratua aurkitzen da .
2018 urtean gurasoen elkartean dauden ordezkariak honen berririk ez zutela eta galdezka etorri dira .

Honen aurrean , udalak ERABAKI DU .

Udalaren inziatiba izan zela eta erreziboaren kopurua handia ez denez , 2018 urtekoa era udalaren gain izatea .

5.-GURASO ELKARTEA . UDALEKUAK ANTOLATZEKO KONTRATAZIOAREN INGURUAN DAGOKIONA ERABAKITZEA .

Guraso elkarteak udalekuak antolatzeke , orain arte egiten zen moduan egin orde , kontratazioak legez egitea erabaki dutela .
Kontratazioak egin ahal izateke , guraso elkarteak betekizun batzuek egin behar dituzte , eta horien artean kotizazio kontua atera eta hori eskuratzeko, internet bidez egin nahi bada , identifikazioa lortu behar dute .
Egin kizun hauen aurrean udalari proposatu diote , udalak kontratazioa egitea 2018 urteari dagokionez .
Udalak , eskaera honen aurrean honen aurrean zera adierazten du :

.-Duela urte batzuek , udalak bere gain udalekuak antolatzen zituela eta gurasoek autonomia izatearren bere n aldetik antolatzea nahi zutela .

.-Eta kontratazioak legez egin ahal izateke , beste moduan ikusi daitezkeela , eta 2018 urtean lortzea ezinezkoa bada , orain arte bezala aurten egin eta hurrengo urterako prestatu daitezkeela .



6.-GURE ESKU DAGO INGURUAN EMANDAKO ERABAKIA BERRONESTEA .

Baliarraingo udaleko sarrera erregistroan , 2018eko maiatzaren 29ean , BALIARRAINGO UDAL ETA HERRIARI , izenburua duen idatzia , BALIARRAINGO GURE ESKU DAGO izenean sinatua aurkeztu da udal honetan , eta sarrera eman zitzaion .

Idatziaren edukiari dagokionez , Gure esku dagok azken urte hauetan daraman ildo estrategikoa adierazten da eta azkenean , ildo strategiakoaren helburura iristeko , udalari eskatzen dio .

“Idatziarekin bat egin dezala GURE ESKU DAGOK EKAINAK 10ean antolatu duen GIZA KATEAN eta luza diezaiola herri guztiari , izena eman eta bertan parte hartzeko proposamenari .”

Baliarraingo udalak , ohiko bilkurarik ez badu egin ere , Korporazioa osatzen duten kideak bildu dira eta guztien adostasunarekin **ondorengoa erabaki da :**

GURE ESKU DAGOK EKAINAK 10EAN ANTOLATU DUEN GIZA KATEAREKIN BAT EGITEN DUELA .

7.-GOI TENTSIOKO LINEAREN INGURUKO ADIERAZPENAREN INGURUAN ADIERAZPENA ONARTZEA , HALA BALEGOKIO .

Gai honen inguruan Tolosaldea garatzenek antolatzen dituzten bilera informatiboetara joatea egokia dela ikusi da eta ondoren , aurkeztutako adierazpenak aztertuko direla .

8.-HERRI TERRENOAN INGURUAN EGINDAKO ESKAERA , BIDEA EGITEARENA IKUSI ONDOREN DAGOKIONA ERABAKITZEA .

Juanjo Nazabal jaunak , udalaren jabetzako partzela den herri mendia deritzanean , zatitxo batean , zuhaitz batzuek bota eta bide bat egin nahi zuela Dorregi baserriko partzelara iristeko. Gaur egun , Dorregiko partzela berak erabiltzen duela eta belar bolak egin eta bere jabetza partzelara eramateko paso hori egokiagoa geratzen zaiola .



Udalak , 2018 eko martxoaren 27 ko Bilkuran, bertara joan eta ikustea komeni dela ; eta ondoren , Juanjo Nazabalekin bertan geratzea erabaki zen .

Bertaratu izan dira, ikusi ere egin da eta baloratu ere bai . eta korporazioak honako irizpide hauek azpimarratzen ditu :

1.-Partzela guztiek bere bidea dutela eta kasu honetan Dorregiko partzelak ere bere bidea baduela .

2.-Proposatzen den bidea herri sailaren gainetik igaroko litzateke eta horrek , herri sailean zordun bat sortuko luke . Zordun izateak , udalaren jabetzako lursailari karga bat ezartzen dio . Eta beste aukerarik egongo ez balitz udalaren jabetzako lursailean karga ezartzea ezinbestekoa izango litzateke , baina kasu honetan Dorregiko lursailak bere bidea badu .

Horregatik , udala honek ERABAKI DU :

Herri sailari karga bat ezartzen zaiola ; Lursailak bere bidea baduela ;beste edozein herri sailetarako aurrekari bat sortzen dela eta , eskaera EZ ONARTZEA .

9.-ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN BERRI EMATEA , 2018-14TIK 2018-26 BITARTE.

Alkateak eman dituen ebazpenak ondorengoak dira :

14-2018.....Leire Zubeldiari lokala uzteko baimena

15-2018....Yoga ikastaroko laguntzak onartu

16-2018.... Dantza ikastaroko laguntzak onartu

17-2018 ...Ordainketak : 2647,87 €

18-2018....Ereduari lokala uztea

19-2018....Ordainketak , 362,52 €

20-2018....Pilates ikastaroko laguntza

21-2018....Ordainketa , 653,99€

22-2018....Bidea erabiltzeko baimena

23-2018....Leire Zubeldia , lokala uztea

24-2018....Igeriketa ikastaroa. Alegi

25-2018....Igeriketa ikastaroa.Ikaztegieta

26-2018... Ordainketak .3591,10€

Mahaikideek ontzat eman dute .



10.-GALDERAK ETA ESKAERAK

BAT.-2017 urtean, Basoetako mantentze lanen hitzarmena amaitzen zen. 2017 urtean eta 2018 urtean lanak amaitu dituztela esanez ordainketa egitea eskatu dute .

Lanak ondo egina dauden ikusteko geratzen da . Ikuskatu ondoren , ondo eginak badaude ordaintzeko geratu da.

BI.-Jai batzordeak 2018 urteko jaien programa eta aurrekontua aurkezten da , guztira 11.015 eurotako izanik .
2018 urteko aurrekontuan aurreikuspena egina dagoela adierazten du idazkariak .

Eta azkenik erabaki da :

2018 urteko jaiak antolatzeko 5600 eurotako laguntza onartzea eta batzordeak adierazitako kontuan diru sarrera egitea .

HIRU .-Ortzadar elkarteak Baliarraingo udalari BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDEN ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN PERTSONEN ALDEKO LAGUNTZA PROGRAMA garatzeko 3000 eurotako laguntza eskatu dutela jakitera eman da .

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

2018 urteko aurrekontua aurreikuspenik ez dagoenez laguntza ez onartzea .

LAU.-Urtero bezala San Juan , Ermenta etxeberri eta Irabi azpi (azken hau beraiek onartzen badute) bideetako bazterrak garbitu behar dira . Egin behar diren lanak dira : Bide bazterrak garbitu , kunetak garbitu eta airean dauden adarrak moztu .

Lan hauek burutzeko bi aurrekontu eskatzea erabaki da , Belarmendiri eta Juanjo Nazabali .

BOST.-Ostatuaren egoera ikusita , lehen ere ordainketetan eguneratzeko plana aurkezteko eskatu bazitzaien eta aurkeztu ez zuenez, berriro eskatzea erabaki da .

Eta besterik ezean , bilera amaitutzat eman zuen alkateak gaueko 21:00etan .

Alkatea

Idazkariak